


CASARES KULTUR ETXEA
C MAILA

DARIETA BIDEA 1



Egilea eta data: ezezagunak.
(Udal Artxiboan ez dago jatorrizko proiekturik).

Deskribapena

Jauregi birgaitua, oinplano nabarmenki karratuarekin eta lau isuriko estalkiarekin. Behe oina, oin nagusia eta estalkipeko oina ditu. Fatxada nagusiaren uniformetasuna eta azpaduretako harrizko harlandua, inpostak eta erdian kokaturiko armarrria nabarmentzen dira. Balkoi adierazgarri baten azpian, ezkaratzak fatxadaren erdian harrizko pilare bat du, eta bertako sabaia zurezko kasetoidura bat da. Fatxadetako azalerak luzitu eta pintatu egin dituzte.

Babes erregimena.

- 1.- Babesteko erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako eta estalkiko elementuak: arotzeriak.
 - B.- Eraikuntzako elementu iraunkorrak:
 - * Fatxadari dagokionean: harlanduzko elementuak eta ezkaratzako kasetoidura.
 - * Estalkiaren konfigurazio orokorra eta espazio publikotik estalki horren pertzepzioa.
 - C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.